



## ESKUBIDEAK ZATIKA ITZULTZEA DELA ETA

10/2015 Errege-Lege-Dekretua indarrean sartzeaz bat hasi zaizkigu kontsultak heltzen honako kontu hauek zertan dauden azalpen eske:

### NORBERAREN KONTUETARAKO EGUNAK

#### (\*) 1.- ASUNTOS PARTICULARES

*A lo largo del año el personal funcionario tendrá derecho a disfrutar, sin necesidad de justificación, de un máximo de nueve días de permiso por asuntos particulares o la parte proporcional que corresponda si el tiempo de servicios efectivos prestados a lo largo del año es menor.*

III. Akordioa arte Lakuako gobernuak ez zituen lan egintzat hartzen Justizia Administrazioan geneuzkan 9 egunak. Sasoi horren aurretik EAEko Administrazio Orokorreko langileek baino ordu gehiagoz aritzen ginen. Bada, 9 egun horiek egiatan lanpostuan emantzat joz hasi ginen disfrutatzen, 2007an. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako gainerako langileek baino ordu gutxiago lan egiten genituen, haiei zegozkien norberaren kontuetarako 6 egunak lanpostuan ez emantzat jotzen bait zizkieten. Horrela denbora laburrez izan ginen.

IV. Akordia sinatu eta gero, EAEko Administrazio Orokorreko beharginek 6 egunak lanpostuan emandakotzat hartzea lortu zutelarik (bi fasetan: lehendabizi 3 egun eta gero beste 3ak), Justizian berriro ateratzen zitzaizkigun Lakuakoei baino ordu gehiago urtean, nahiz eta akordioa (lan-baldintzak parekatzekoa omen) oinarri harturik, erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen pare jarri gintuzten. Gogoan izango duzue seguruenara nola lortu genuen 2011ko egutegitik 10 ordu gutxitzea: urtean 1557 orduko lanaldiaren ordez 1547 ordukoa, lanpostuan eman beharreko orduak dira guzti horiek.

Laburbilduz: norberaren kontuetarako egunak Justizian 9 eta Administrazio Orokorrean 6 izan arren, urteko orduen kopuru bera ateratzen zen, Lakuan norberaren aukerako 3 egun zeuzkatelako norberaren kontuetarako egunez gain, jakina.

Madriletak murrizketak etortzen hasi ziren garaian, Eusko Jaurlaritzak haiei men egin ez ezik -3 egunetan utzi zituen norberaren kontuetarako egunak-, urteko lanaldia ere luzatu zien Administrazio Orokorreko beharginei; izan ere, horrek ekarri zien soberako ordutegiko egun gutxiago izatea. **Argiago esateko: 6 laneguni dagozkion orduak kendu zizkieten; beraz, Justizian bakarrik ez zizkiguten kendu norberaren kontuetarako 6 egun.**

Gauzak horrela, Lakuak bere ardura pean dituen langile guztiei norberaren kontuetarako egun bat zor die, seigarrena osatze aldera; eta Administrazio Orokorrean, itzuli behar dizkie ebatsi zizkien 3 egunak, soberako ordutegikoak hain justu. Hitz gutxitan, 2012ko egutegia berreskuratzeko (murrizketen aurrekoa) erkidegoko administrazioaren menpeko langile guztioi 4 egun eman beharko lizkigukete, ez Lakuak itzuli nahi digun bakarra. (Atzo ezagutu genuen Lan Harremanetarako Zuzendariaren zirkularra, 6. eguna ezagutzen diguna).

Honako hau jakitea inportantea da: IV Akordioa sinatu genuenetik urteko orduetan oinarritutako egutegia daukagu eta azken garaiotan EJko langileek egiten dituzten ordu kopuru bera dagokigu, egun gehiago lan egin genitzan Jon Arturo Uriartek prestatu zuen jukutria

ahaztu gabe (gu guztion borrokak atzera bota zuen zuzendariaren asmoa eta azkenean ordu gutxi batzuk gehiago izan ziren 2013an; 2014an berriro parekatu ginen).

**Ohi duten bezala, entzun behar izango dugu hedabide guztietan 6. egun horrekin eskubide guztiak lehengoratu dizkigutelako gezurra. EJK ere gezur hori esango du, jakin arren langileekin zorretan dagoela oraindik, herritarrak ezjakin izanik beste 3 egun gehiago ostu zizkielako.**

## ANTZINATASUNA DELA ETA, NORBERAREN KONTUETARAKO EGUNAK

### (\*) 2.- DÍAS DE LIBRE DISPOSICIÓN:

*El personal funcionario tendrá derecho a dos días de libre disposición al cumplir el sexto trienio, incrementándose en un día adicional más por cada trienio cumplido a partir del octavo. Por tanto, el séptimo trienio no genera el derecho a ningún día adicional. El disfrute de estos días de libre disposición se hará efectivo a partir del mes siguiente a ser perfeccionados los trienios.*

(\*\*) Artículo 2.

*Dos. Se añade una nueva disposición adicional decimocuarta, con la siguiente redacción:*

*«Disposición adicional decimocuarta. Permiso por asuntos particulares por antigüedad.*

*Las Administraciones Públicas podrán establecer hasta dos días adicionales de permiso por asuntos particulares al cumplir el sexto trienio, incrementándose, como máximo, en un día adicional por cada trienio cumplido a partir del octavo.»*

(\*\*) *Disposición adicional segunda. Aplicación del permiso por asuntos particulares por antigüedad a la Administración General del Estado.*

*El permiso a que hace referencia el artículo 2.Dos de este Real Decreto-ley será de aplicación en la Administración General del Estado, organismos y entidades vinculados o dependientes.*

Egun hauek estatuko enplegatu guztiok dauzkagu; hortaz, EJK Mahai Orokorrean hartu beharko duen erabakiaren ostean, **Justizia arloko mahaira deituko gaituzte jakinarazteko noiz eskatu eta noiz arte disfrutatu daitezkeen**; litekeena da urtarrilaren 15etik aurrera luzatzea eskatzeko epea. **Justiziako kidegoei egun hauek emateko behartuta dago saila, BJLOK baitio Estatuko Administrazio Orokorreko langileek dauzkaten baimen berdinak dagozkigula eta esparru horretan onartuta daude.** Gainontzeko administrazioei dagokienez, EAEkoa barne, arau berriak "ahalmena" ematen die, beraz, Eusko Jaurlaritzaren nahaian geratuko da egunak eman ala ez. Baina, gobernuak eskubideak lehengoratzearen aurka agertuko balitz, esparru guztietako langileok eman beharko genukeen borrokaren neurriaren esku geratuko litzateke egun horiek disfrutatzea.

## 15 URTE BAINO GEHIAGO LAN EGITEAGATIK OPOR EGUN OSAGARRIAK

(\*) 3.- *Además en el supuesto de haber completado los años de antigüedad en la Administración que se indican, se tendrá derecho a un incremento en los siguientes días de vacaciones anuales:*

- Quince años de servicio: un día más hábil*
- Veinte años de servicios: dos días más hábiles*
- Veinticinco años de servicio: tres días más hábiles*
- Treinta o más años de servicio: cuatro días más hábiles*

*Este derecho se hará efectivo a partir del año natural siguiente al cumplimiento de la antigüedad referenciada.*

(\*\*) Artículo 3.

*Tres. Se añade una nueva disposición adicional decimoquinta, con la siguiente redacción:*

*«Disposición adicional decimoquinta. Días adicionales de vacaciones por antigüedad.*

*Cada Administración Pública podrá establecer hasta un máximo de cuatro días adicionales de vacaciones en función del tiempo de servicios prestados por los funcionarios públicos.»*

Justizia Administrazioaren esparruan, **BJLOk berriro lotzen gaituenez Estatuko Administrazio Orokorreko langileentzako araudiarekin, eman behar dizkigute egun hauek.** EAEko Administrazio Orokorrean sekula ere ez diete mota honetako egunik ezagutu; izan ere, hori dela-eta eztabaida latza izan genuen sailarekin aurpegiratu zigutelako kontu batzuetan parekotasuna bai, baina beste batzuetan ez genuela aldarrikatzen. **Egia da, orduko hartan legeak onura zekarkigun; eta oraingoan LABek esango die zain gaudela EJK homologazioa eskain diezaien Justiziako langileei.** Horrek zer ekarriko? Bada, lan-baldintza batzuetan zeozer galtzea, baina baita ere egun libreak galtzeagatik osagarria jasotzea (200 €tik gora / 300 €tik gora, kidegoaren arabera). Norberak erabaki beharko luke homologatu ala ez. Beraz, EJK Justiziako langileei EAEko gainerako langileen lan-baldintza berdina (diru-baldintzak barne) ahalbidetu arte legez dagozkigun ezein lan-baldintzari ez diogu uko egingo.

Are gutxiago 10/2015 ELDk zabaltzen duen bidea ikusirik: lehendabiziz EAEko Administrazio Orokorreko langileek opor egun hauek izateko aukera dute; EJren borondateak esango du.

#### **2012ko APARTEKO LANSARIA**

**Gobernu autonomikoak erabaki behar du noiz ebatzi kontu hau.** Justizia Administrazioan titularrei nomina aurrerapenak egin badizkiete ere, bitarteko langile ugari daude ezer ez aurreratu ez dietenak; hori dela eta, ez da pentsatzekoa Lakuak 2015eko abenduan berdindu nahi izatea zorra. Litekeena da %26,2 aurten eta gainerako erdia 2016an osatzea (%24,04 apirilean ordaindu ziguten). Beste aukera bat izan daiteke zor osoa uztea 2016ko aurrekontuetarako. Funtzio Publikoaren ardurak izango da nola kobratuko dugun EJren menpeko kidego guztiok.

#### **LABen IKUSPUNTUA**

Jokabide zitala bertan behera utzi beharrean, administrazioak inposizioa besterik ez du erabiltzen. Negoziazioa modan ez dagoen kontzeptua da klase teknokratentzat. Hain zuzen, EAEn, EAJk erabakitze esparrua bakarrik aldarrikatzen du bere interesen kontra talka egiten ez duen. **Hauteskundeak hurbildu ahala, ikusiko dugu nola itzultzen diguten lapurtutakoaren zatiren bat, hautestontzietako balizko etekinak gogoan. Ez egin dudarik, gure esku dago soberan duten nagusikeria garesti ordain dezatela.**

2015-10-02

(\*) Justizia Sailaren araudia, 2011n, murrizketa basatienak ezarri aurretik, aplikatzen zen moduan.

(\*\*) 10/2015 Errege-Lege-Dekretua, irailaren 11koa. BOE: 2015-09-12.

---